

Ariketa hauek Ikasbileko 2029013 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-60 Boonba!

Mailak: B2-C1

Funtzioak: whatsapp erabiltzeko ohiturak kontatu, iritzia eman, adostasuna/desadostasuna azaldu

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*whatsapp, berritu, zerbitzu, facebook, twiter, sare sozial, igerileku, sorosle,...*) Iritzia: *nik uste dut...-(e)la; garbi daukat...-(e)la; nire ustez...; nik esango nuke...-(e)la; ez dut uste /ez zait iruditzen... -(e)nik; Beti pentsatu izan dut.... -keela;*

Adostasun/desadostasuna: *Ez nago ados / ados nago esan duzunarekin, izan ere..., Zure ikuspuntua onartzen dut, baina nik zera....nahi nuke: ; Bat nator / ez nator bat lehen entzundakoarekin*

Azken ekintza: eztabaida: whatsapp bikotekidea kontrolatzeko tresna?

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

1.1 Whatsapp nola erabiltzen duzu?



Ikasgelako mintza-saioan erabiltzeko jarduera: whatsapparen erabilera ohiturei buruzko galdetegia bete behar dute ikasleek. Zerrendakoez gain, idatz dezatela bestelako ohiturarik ere.

Aukeratu zure erabilera ohituretara gehien hurbiltzen diren baieztapenak.

- Ezagunekin harremanetan egoteko ezinbesteko tresna da eta asko erabiltzen dut
- Gaueko ordu txikitari ere whatsapp bidali izan ditut
- Ez dut pasatzen ordubete baino gehiago whatsapp kontsultatu gabe
- Ez dut sekula ordaindu zerbitzua, beraz orain whatsapp gabe nago eta pozik bizi naiz
- Talde batean, nire mezuak nork irakurri dituen begiratzeko ohitura daukat
- Askok haserretzen naiz whatsapp jaso eta erantzuten ez didatenean
- Berehala erantzuten ditut mezu guztiak
- Telefonoa deskonektatuta eramaten dut whatsapp gabe ez jasotzearen
- Bikotekideekin harremanetan egoteko erabiltzen dut askotan. Horrela, badakigu bakoitza uneoro zertan ari den eta horrek lasaitasuna ematen dit.
- Askok gogaitzen nau bolo-bolo dabiltzan irudi, bideo zein mezu "barregarriak" jasotzea. Baina tarteka neuk ere bidali izan ditut
- Whatsapp denbora galtzeko tresna aparta da, horregatik lanean ari naizenean ez dut sekula begiratzen mezurik daukadan ala ez.
- Whatsapp daukadanetik zorientzeko mezuak aplikaziotik bakarrik egiten ditut
- Besterik: _____

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

- Elkarriketari erabili diren esamoldeak egoki kokatzeko ariketa.
- Nahi izanez gero, molde horiek erabiliz, gertatutakoa birkontatu, grabatu eta ikasleari bidali

1- Entzun aurretik

1.2 Whatsapparekin arazoak

Jon whatsappak bidaltzeko arazotan dabil. Ikasleek arrazoia zein izan daitekeen asmatu behar dute eta ikaskidearekin komentatu ondoren, audio-pasartea entzun eta benetako arrazoia jaso dezatela.

- Interneterako konexio txarra dauka
- Ez du zerbitzua berritu kuotarik ez duelako ordaindu**
- Instalazioan arazo bat izan du eta ezinezkoa zaio lehengo kontaktuei mezuak bidaltzea
- Kontaktuek bere mezuak jasotzea blokeatu dute
- Whatsapp ez da bateragarria Android sistemarekin
- Besterik? : _____

2- Entzun bitartean

2.1 Jon eta Whatsapp

Irakurri ditzatela baieztapenak eta aukeratu entzun dutenarekin bat datozenak. Ondoren, alderatu dezatela ikaskidearekin.

✓	✗	
✗		Jon harrিতa dabil ez duelako Joneren erantzunik jasotzen whatsappetik
	✗	Joneri iruditzen zaio whatsappak doakoa izan beharko lukeela
	✗	Jon prest dago urtero whatsapppeko kuota ordaintzeko, baina oraingoan pasa egin zaio
✗		Joni doako mezularitza zerbitzuak erabiltzea bururatu zaio, baina Joneri ez dio batere graziaz egin beste zerbitzu bat deskargatu behar izateak.
✗		Joni sare sozialak ez zaizkio gustatzen, halere, whatsapp neurririk gabe erabiltzen du Joneren ustez
✗		Jonen esatetan, Jonerekin harremanetan erabiltzen du hainbeste whatsapp
	✗	Igerilekuan bonba egiten atera diote argazkia Joni eta whatsapppe bidali diote sorosleari
✗		Jonek esan du Jone biluzik agertzen den argazkiak jasotzeko aktibatu duela whatsapp


2.1 Txaplata hutsa

Joneri Jon whatsapparekin "pelma" jartzen dela iruditzen zaio. Zein izan da Jonen erreakzioa hori entzundakoan?






- Axola ere ez dio egin
- Ez zaio batere gustatu Jonek txaplatatzat hartzea**
- Bera ez, benetako txaplata dena Jone bera dela, erantzun dio haserre

3- Entzun ondoren

3.1 Whatsapparen erabilera ikasgelan

Ikasgelan whatsapp nola erabiltzen duten aztertuko dute. Prozedura: partekatu dezatela ikaskidearekin  ariketan erantzun dutena. Ondoren, kontatu dezatela talde handian ikaskidearen gehien harritu dituzten ohiturak . Azkenik, zerrendatu ditzatela gelako ohiturarik zabalduenak.

3.2 Bikotea kontrolpean

     Whappak harremanetan jartzeko tresna egokia izan arren, zerbitzuaz egiten dugun erabileran arreta jartzea merezi du. Horretaz arituko dira jarduera honetan:

1. Whapparen bidez kontrolatzeari buruzko testua irakurri ondoren, baloratu dezatela zein neurritan erabiltzen duten whatsapp helburu horrekin. Partekatu ikaskidearekin pentsatzen dutena

Datu ofizialik eta estatistikarik ez dagoen arren, psikologia kontsultetan gero eta presentzia handiagoa hartu omen dute azken urteotan sare sozialek eta eskuko telefonoen zenbait aplikaziok, **Whatsapp** arrakastatsuak bereziki.

Aditu batzuen esanetan tresna berri horiek ez dute hainbeste aldatu pertsonen harremantzeko modua, baina joera batzuk areagotu egin dituzte, kontrolarena kasu. **Whatsapp** aplikazioa, esaterako, kontrolerako modu zorrotza bihurtu da. «*Duela ordubete idatzi diot mezu bat, irakurri du eta ez dit erantzun. Zergatik? Zertan ari ote da? Zeinekin?*».

Bikote harreman askoren krisietan omen dago **Whatsapp** aplikazioa. Izan ere, sare sozialak eta teknologia berriak tarteko, normalizat jotzen da une oro konektatuta egon beharra, bai lanagatik bai bizitza pertsonalagatik.

Eta tresnok kontrolerako bitarteko eraginkorrak direnez, bikote harremanetan kontrol beharra duenak badauka nola ase bere ezina. Kontrolatzaileak orain bezala lehen bazeuden, baina lehen ez zuten Whatsapp aplikazioa eta beste bide batzuk erabiltzen zituzten. Adituen esanetan, «duela hamar urte bikotearen poltsa edo kartera miatzen zen informazio bila. Orain, telefonoa. Moduak aldatu dira, baina mamia lehengo berdina da. Orain metodoak errazagoak dira»

Teknologiaren arriskuak eta aukerak artikulutik hartua www.naiz.eus

2. Eztabaida: gaiaz jarduteko bi ikuspuntu desberdin dituzte. Bi taldetan banatuta ideia hau **landu behar dute**: Nolako funtzioa dauka whatsapp bikote-harremanetan? Eztabaida hasi aurretik, banatu rola ikasleen artean. Beraiek, ideia argudiatzeko bospasei arrazoi idatzi beharko dituzte. Ondoren, argudioen berri eman gainerakoei eta adostasuna/desadostasuna azaldu elkarri.

A TALDEA	B TALDEA
<p>Whatsapp bikotea kontrolatzeko tresna:</p> <ul style="list-style-type: none"> • _____ 	<p>Whatsapp bikotearekin komunikazioa areagotzeko tresna:</p> <ul style="list-style-type: none"> • _____

<ul style="list-style-type: none"> • _____ • _____ • _____ • _____ 	<ul style="list-style-type: none"> • _____ • _____ • _____ • _____
--	--

☺ **Gogoratu iritzia eta adostasun/ desadostasuna azaltzeko honelako egiturak erabili ditzakezula:**

- *nik uste dut...-(e)la*
- *garbi daukat...-(e)la*
- *nire ustez...*
- *nik esango nuke.... -(e)la*
- *ez dut uste /ez zait iruditzen... -(e)nik*
- *Beti pentsatu izan dut.... -keela*
- *Ez nago ados / ados nago esan duzunarekin, izan ere...*
- *Zure ikuspuntua onartzen dut, baina nik zera....nahi nuke:*
- *Bat nator / ez nator bat lehen entzundakoarekin*

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

3.1 Banengoen ba!

Elkarrizketan esamolde biziak erabili dituzte.

1. Zuk erabiliiko zenituzke azpimarratutakoak beste era batera esateko? Aukeratu egokien iruditzen zaizuna.
2. Nahi izanez gero, praktikatu molde horiekin gaurko atalean gertatutakoa labur-labur kontatzeko. Grabatu zure proposamena eta bidali iezaiozu irakasleari bere iritzia jaso dezazun.

<p>Ordu erdi bat baino zerbait gehiago bada mezua bidali dizudanetik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - ordu erdi bat pasatxo - pasatako ordu erdi bat - ordu erdia pasatakoan
<p>Pentsatzen nuen ez zela normala inoren mezurik ez jasotzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - banengoen ba ni - banekien nik - pentsatzen nuela nik
<p>Nik uste nuen whatsapp debalde zela</p> <ul style="list-style-type: none"> - musu-truk - aurpegiatik - ezeren alde
<p>Whatsappa ez baduzu aktibatzen, bukatu da gure artekoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - akabo - akabatu da

- akabatzen da
Ez dut whatsapp gustuko, telefonoz deitzen ez ibiltzeko erabiltzen dut
- deika
- deituta
- hots eginka
Biziki haserretzen nau urtero Whatsapp ordaindu behar izateak
- amorrua ematen dit
- irakiten dit
- nire onetik irteten zait

TRANSKRIPZIOA

JONE Kaixo Jon

JON Aizu iritsi al zaizkizu nire watxap-ak?

JONE Watxap-ak? Ez. Noiz bidali dituzu?

JON Ba izango da ordu erdi pasatxo, bai.

JONE Ba duela 5 minutu edo begiratu dut eta ez nuen ezer

JON Kaguenlaputa, banengoen ba ni. Ez dakit zer gertatzen den baina ez dira iristen bidaltzen ditudan mezuak.

JONE Igual berritu beharko duzu.

JON Nola berritu?

JONE Bai, zerbitzua berritu behar izaten da. Urtean behin uste dut.

JON: Baina hori ez al da legenda urbano bat? Nik uste hau musu-truk dela.

JONE. Ezer ez da musu-truk egun, baina lasai uste dut euro bat edo halako zerbait dela.

JON: Ah ba nik ez dut ordainduko, beste mezu zerbitzu batetara apuntatuko naiz.

JONE Ba orduan akabo gure artekoa, watxapari dagokionez behintzat. Ze nik ia ez dut beste mezu zerbitzurik deskargatuko, titietaraino nago.

JON Ez nau harritzen twitter, facebook, denetatik daukazu.

JONE Eta zuk watxapa soilik duzu baina egun osoa mezuekin pelmada ematen zbiltza eta gero ez zara kapaz euro bat ordaintzeko zerbitzuagatik?

JON Pelmada ematen dizut?

JONE Bueno Jon, badakizu zertaz ari naizen. Eseki behar dut bilera batera noa eta. Gero elkarrekin joango gara igerilekura?

JON Orduan pelma samarra naiz.

JONE Ez nuen hori esan nahi.

JON Ba hori esan duzu.

JONE Ia baina ez zentzu horretan, badakizu.

JON Gorroto dut pelma bat izatea.

JONE Ez zara pelma bat... baina beno onartu facebook eta twitter ez izan arren, watxapa behintzat gustatzen zaizula...

JON Zurekin kontaktuan egoteko eta, hain zuzen ere, pelma baten antzera deika ez ibiltzeko erabiltzen dut

JONE Badakit, baina orain ez duzunez euro bat gastatu nahi watxappa berritzeko...

JON Besterik gabe amorrua ematen didalako.

JONE Joder Jon, euro bat sekulako zerbitzua ematen dizun zerbaitengatik.

JON Ia badakit, Jone, ikusi.

JONE Baina zer egin beh...?

JON Boooooommbaaaaa !!!!

JONE Jajajajaja zure adinarekin eta soroslearen bronka jasotzen.

JON Bueno ez da bronka izan, igerilekuan bonba saltoa eginez ezin dudala sartu esan dit, besterik gabe.

JONE Ze izango zituen 20 urte?

JON Bai, gizajoa, bere aita izan zitekeen norbaiti atentzinoa deitu behar izatea.

JONE jajajajaja Bueno Jon, Niko jasotzera noa eta gero etxera.

JON Bueno ba, agur.

JONE Nola agur?

JON Agur, gero arte.

JONE Eta pikito?

JON Jajajajajaja Tori pikito

JONE Argghh mingaina Jon! Hori ez da pikito izan Jon.

JON Hori pikito bonba bat izan da eta nahi baduzu joan zaitetz soroslearengana kexatzera.

W-JON Aupa Jone, hementxe pelma berriro

W-JONE Jajaaj euroa ordaindu duzu azkenean

W-JON Ze erremedio, bestela nola jaso behar ditut bidali behar dizkidazun zure argazkiak

W-JONE: Ze argazki?

W-JON. Ba zu biluzik eta posturidak egiten.

W-JONE Jajajajaja Marrano!

W-JON : kurrin-kurrin

W-JONE Bueno... igual zerbait bidaliko dizut geroago.